

Poliziak hil zorian eraman du atxilotu bat Basurtoko ospitalera

Kalparsoro komisaldegiko leihotik amildu dela dio Gobernu Zibilak

Xabier Kalparsoro euskal errefuxiatu zumaiarra egoera larrian dago Basurtoko ospitalean. Bertorio ofizialaren arabera, indautxuko komisaldegitik ihes egiten saiatzean leihotik erori zen Kalparsoro. Errefuxiatu zumaiarra herenegun atxilotu zuen Durangoko Udaltzaingokoak eta Carlos Berrojen epaileak espetxeratzeko agindu zuen.

A. ZUBEROGOITIA / BILBO

Xabier Kalparsoro errefuxiatu zumaiarra atzo goizaldeko 50etan ingresatu zuten Basurtoko ospitalean. Sendagileen ostenean arabera «egoera larria» zegoen Kalparsoro. Burelako haustura hirukoitza eta eruputzean zehar ere zauri ugari. Burelako lesioak «oso larriak» dira, indagileen arabera, baina ez hobe gortutakoak.

Eguneroko torturaren ondorio» dela dio HBko Mahai Nazionalak

JON ESKISABEL / DONOSTIA

Herri Batasunaren iritziz, Gurutze Iantzen heriotza eta Xabier Kalparsororen egoera larria eragiten duen indarrek eguneroko erabilpen duten torturaren ondorio dela ziur gaude ez direla azken horiek izango.

Mahai Nazionalak Madrilgo Bilboko gertakizunak aztertutik atzo arratsaldean Donostian egindako larrialdiko bileran, Gurutze Iantzi HBko batzorde buruak kidea zen Urnietan. Medenaldi batean, Floren Aoi- HBren salaketa azaldu zuen



Komisaldegiko bigarren pisutik salto egin zuela dio Poliziak. SIMAL

rangoko udaltzainek herenegun atxilotu zuten Kalparsoro, iluntzeko zortziak aldera furgoneta bat lapurtzera zihoanean. Beti ere iturri horien arabera, «kasualita-

tez» atxilotu zuten udaltzainek errefuxiatu zumaiarra, kaletik zihoala susmagarri iruditu baitzitzaie. Dena den, Durangoko Udaltzaingoko iturriek ez zioten

guzti hori berretsi nahi izan EGUNKARIARI.

Behin atxilotuta, Kalparsorok aldean pistola bat, agiri faltsuak eta diru mordoa zeramatzala ikustean udaltzainek Polizia Nazionalaren eskuetan utzi zuten gaueko 11.30ak aldera, eta Buerenek espetxeratzeko agindua eman zuen. Duela bi urte t'erdia egin zuen ihes Kalparsorok.

BI BERTSIO EZBERDIN Indautxuko komisaldegira eraman zuten Kalparsoro.

Bertan, Bizkaiko Gobernu Zibiletik adierazi dutenaren arabera, zenbait diligentsia egitera zihozten unean ustezko ETako kidea leihotik ihes egiten saiatu zen bera zaintzen ari zen funtzionariari eraso ostean. Leihotik erortzean zauri larriak egin eta Basurtoko ospitalera eraman zuten. Amnistiaren Aldeko Batzordeetako iturriek berriz, zera eman zuten aditzera: «Basurtoko ospitaleko erizainek adierazi digutenez, Xabier Kalparsorok une batean konortera etorri eta 'ez nazazue gehiago jo, dakidan guztia esango dut eta' oihukatu zuen.

ERREAKZIOAK

● **EAE-ANV:** «Lazo urdinaren kanpaina hasi zenetik bi pertsona hil dira torturapean eta beste bat hiltzeaz dago torturetatik ihes egiterakoan ustez amildu denean. Zer egingo dute orain kanpaina hau bultzatu dutenek ekintza larri hauen aurrean?».

● **BATZARRE:** «Lege Antiterroristaren aldeko jarrera eman zuten eta ematen ari diren alderdiak heriotza honen erantzule direla salatu nahi dugu». Batzarren iritziz, Lege Antiterroristaz baliatzen dira «Estatuko Segurtasun indarrak, zigorrik gabe ari-tzeko eta atxilotuak arbitrarioki tratatzen dituzte, inolako defentsarik gabe uzten dituzte».

● **HAUTSI:** «Botereak eragindako indarkeria guztia justifikatu duten alderdi zein erakundeak gaitzesten ditugu. Lege Antiterroristak eta lazoen kanpainak laguntzea eta Poliziaren errepresio oro isiltzea hauei dagozkien ezaugarriak dira. Gurutze- ren alde lazorik izango al da?»

● **EZKER BATUA:** «Terrorismoaren aurkako borroka herri-tarren askatasun eta giza eskubideenganako errespetua agertuz egin behar dute Estatuko Segurtasun Indarrek. Era honetan soilik eutsiko dio Estatuak ETaren kontra duen legitimitateari».

● **ELKARRI:** elkarte honen Tailer Nazional Iraunkorrek ezohizko bilera egin zuen eta atzoko gertakizunen gaineko balorazioa gaur eguerdian emango duela adierazi dute.

Etzi Gipuzkoan greba orokorra egiteko HBren deia

DONOSTIA

Datorren astelehenean Gipuzkoan greba orokorra egiteko deia zabaldu zuen atzo HBk gizarteak Gurutze Iantzen heriotza salatu dezan. Halaber, gaurko eta arratsaldeko zazpi t'erdietan mobilizazioak antolatu ditu HBk Hego Euskal Herriko herri guztietan.

Rufi Etxeberriak esan zuenez, «ezinbestekoa da gizarteak gertatutakoaren pareko erantzuna azaltzea». Etxeberriak deia egin zien gobernu agintariei mobilizazioen normaltasuna berme dezaten.



HBko Mahai Nazionalako ordezkariak atzoko prentsurrekoan. KOCH

prentsurrekoan.

Aoizen esanetan, atzoko gertakizunak «larriak dira, atxilotuak Estatuko segurtasun indarren erantzukizunpean zeudelako». HBk ez ditu sinesten Goardia Zibilaren bertsio ofizialak, «mundu osoko diktaduretan torturak estaltzeko ematen diren argudio berberak ematen ditu», eta Iantzik eta Kalparsorok torturak jasan dituztelako uste osoa du.

Estatuaren «izaera odoltsu» ageri dela esan zuen Aoizek, eta tortura indarkeria erabiltzeko era bat dela gogoratu, «giza eskubideen etsai nagusia» izatea egotzi zion Gobernuari.



HEGOALDE
euskaltegia.

EUSKERA 93/94

✓ Urrats guztiak
✓ 4 eta 2 ordu
✓ Goizetik gauera
✓ Larunbatetan EGA lau ordu
HABEren dirulaguntzaz antolatuta
Florida 58, Behea Tf.: 28 41 96 GASTEIZ



HABEren dirulaguntzaz

93 - 94 IKASTAROAK

- Euskalduntze maila guztiak, 2/5 orduz eguneroko
- Mintza-taldea astean bitan (Urria-Ekaina)
- EGA eta ALFABETATZEN eguneroko 2 orduz (Urria-Ekaina)
- EGA eta ALFABETATZEN eguneroko 3 orduz (Urria-Otsaila)
- EGA eta ALFABETATZEN eguneroko 5 orduz (Urria-Otsaila)
- EGA eta ALFABETATZEN (larunbatero 4 orduz (Urria-Ekaina))

EUSKARA ONGI IKASTEKO!

Konstituzio Plaza, 5 - DONOSTIA - Tel.: 42 49 10

FORUKO UDALA

Udalbatzak, 1993ko irailaren 10ean egindako batzaraldi berezian, Foruko A) motako Plangintza Ordezko Arauen 1. ziklo aldaketa puntualari hasierako onestea emateko akordioa hartu zuen. Aldaketa, Elexalde auzoan giza-tekul- lurral eta kirol horniduraren berrantolaketa buruzkoa da.

Agente ffori jendaurrean dago udal bulegoan, interesdunek egoki- zat jotako murtziloak nahiz alegazioak dituzten, iragarpen hau "Euskal He- rriko Agintaritzaren Aldizkarian" argi- tatzeko eta hilaeteko epean.

Riojan, 1993ko irailaren 15ean. ALKATEA